

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

## Barazkitza

Krisi ekonomikoa eta bizitza kalitatea. Bati ihesi eta bestearen bila baratzea nonahi ugaritzen ari da. Terraza eta balkoietan, autopista saihetseko penditzetan, edozein lur ona da... Gogoia izan behar.

Argazkiko baratze hau Orion dago. Bertako gazteek errio bazterreko eraikin zahar bat okupatua dute gaztetxetarako. Honek aldamenean duen belardian baratzea sortu dute. Bertan paratu duten arraun ontzian eta atzeko sarezko itxitura koloretsuaren barruan barazki ugari izan dute pasa den sasoiaren. Errio bazterreko herriko ibilbide ezagunenaren ondoren egonik, begi bistako baratzea da, ikasteko egokia oso. Eskuera izate hori, baina, bertakoa hartu eta eramateko aprobe txatu du bateren batek, agidanean, uzta agerian zenean, "Ez hartu, eskatu" zioen txartela jarri baitzuten. Baratzezale eta elkarrekin lan egiteko prest dauden gazteak. Eta eskuzabalak.



## Artaburutsua

NIRE IRAKURKETA gaizkideek badakite: beti izan naiz Ambrose Bierceren inbidiatan. Hark idatzi zuen gustukoenetako liburuen artean dudan hiztegi bat: *The Devil's Dictionary*, deabruaren hiztegia, alegia. Tamaina hartu eta zehatz adierazten du ez nolana hitz bakoitzaren esanahia; adibidez, legezkoa



J.H.E. PARTINGTON

Ambrose Bierce (1842-1914?).

adibidez, legezkoa "dagokion epailearen borondatearekin bateragarria" dena da, edo historialaria "munta handiko txutu-mutxu kontalaria".

Landareen ingurukoarekin antzeko zerbait egi-teak ikaragarri poztuko ninduke. Aza hostoa, baba lorea, artaburua, aitzurra, zokor-mazoa, melokotoia, sega-potoa, porru haziak, sasía, alferra, zorria, arrosadun arantza, jorraia, elorri izatea, simaurtu, eutsagaia, txertaka edo txertatu gabea, mihura, metatxorroa, eta abar zer diren, benetan zer diren, behin betiko bildu eta jasota gustura ikusiko nituzke.

Lehen goan ohelagun batek xalo asko botatakoea ekarri nuen hona: pinuen adar muturretan ageri diren prozesionario beldarraren habiak, zeta zurizko distiratsuak, zuhaitz beltz horien loreak ote ziren galdetu zuenekoak. Pinu beltza (*Pinus radiata*) beldarretan loratzen dela, etekina hori duela uste duenak hiztegi horren ikuspuntutik ez dabil oso urrun.

Ohea bera bezain bertakoa ez, baina urrutira gabeko beste batek patata zein arbolak ematen zuen galdetu zidanekoak etortzen zait burura horrelakoren bat entzuten dudanero.

Tristura harrotzen dit inguruaren gure ikuskera horrek, baita irribarrea piztu ere.

Artoa (*Zea mays*) euskal paisaia kulturaletik desgertzen ari den honetan, benetako artaburuak iraungo duela jakiteak behintzat ikaragarritzko lasaitasuna ematen dit. Eta musika asarrea, berebizikoa, egiten du.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.com](mailto:landareak@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.